



BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VIZCAINA DE FÚTBOL

Bilbo, 2021eko urtarrilaren 11an.

BATZARKIDE AGURGARRIA:

Hauteskunde-Batzordeak Bizkaiko Futbol Federakundeko Batzar Nagusiko kideak behin betiko izendatu ondoren, Estamentu bakoitzeko aukeratu beharreko ordezkarien kopurua eskatu zaio Euskal Federazioari, ordezkari hauek Euskadiko Federakundeko Batzarra osatu dezaten. Horretarako hurrengo kide kopurua egotzi da:

ZELAI FUTBOLA

- | | |
|---|----|
| a) <i>Klub-en eta Kirol Elkarteen Estamentua:</i> | 50 |
| b) <i>Kirolarien Estamentua:</i> | 4 |
| c) <i>Teknikoen Estamentua:</i> | 5 |
| d) <i>Epaileen Estamentua:</i> | 6 |

ARETO FUTBOLA

- | | |
|---|---|
| a) <i>Klub-en eta Kirol Elkarteen Estamentua:</i> | 4 |
| b) <i>Kirolarien Estamentua:</i> | 1 |
| c) <i>Teknikoen Estamentua:</i> | 1 |
| d) <i>Epaileen Estamentua:</i> | 0 |

Horren arabera eta Hauteskunde-Araudian agintzen denaren arabera, Euskadiko Futbol Federakundeko Batzarreko kide izan nahi duten batzarkideek, hautagai ereduak aurkeztu ahal izango dute eredu ofizialen bitartez Federazioaren bulegoetan edo intranetaren bidez, **2021eko urtarrilaren 18ko 13:00ak baino lehen**. Hautagaiak eta bete beharreko karguak egokitzen badira, hautatutzat hartuko dira.

Plaza baino hautagai gehiago egongo balira, batzarkideei Kanpoko Batzar Nagusira deituko zaie ze hautagaiak dauden jakinaraziz, eta botaketa egin ondoren, izendapena estamentuko boto gehien dituztenei egokituko zaie. Zenbaketan hautagaiek lortu duten ordena jasota geratu behar da, era berean ordezkoak aukeratzeko.

Ez-ohiko Batzar Orokorra, urtarrilaren 25ean ospatuko da, ordutegia eta tokia zehaztuko da.

Hauteskunde Batzordea

Sinatuta: José I. Garcia

Sinatuta: José M.^a Bernedo

Sinatuta: Iñigo López-Uribarri